



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015eko EKAINAREN 30ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko ekainaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.40etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
-2015eko ekainaren 13an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako Goizargi etxearen teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera, I.G.**
- 5. Tolomendiri 2015 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 6. 2015 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Guifinet ekosistema ezartzeko proiektuan egindako lanen ordainketa onestu, hala bada.**
- 8. A.M. andreak eginiko idatziaren azterketa, hala bada.**
- 9. Santiago Ermita bidearen etxejabeak eginiko idatziaren azterketa, hala bada.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galdera eta mozioak.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko ekainaren 13ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

23/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 10ekoa, 2015 urteko lehenengo sei hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

24/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 15ekoa, udaleko langileei aparteko paga ordaintzea, ebazten duena.

25/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 15ekoa, M.G.E. andreari SS6498BJ ibilgailuaren dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera onestea, behin betiko baja emateagatik, ebazten duena.

26/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 17koa, J.R.E. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, ebazten duena.

27/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 17koa, BPG Coordinadores S.L.-k aurkezturiko aurrekontua onestea, ebazten duena.

28/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 18koa, Carpinteria Antzola S.L.-k aurkezturiko aurrekontua onestea, ebazten duena.

29/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 23koa, Alkizako Udaleko Lehen eta bigarren Alkateordeak izendatzekoak, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

IZFE	1.812,69
IBERDROLA	98,57
COPY-TEC	63,17
CALPARSORO INDUSTRIAL	64,72
KEY-LAN	11,50
BELAKO	30,00
BIDATEK	471,90
RECAMBIOS IBARRA	35,63
GURDI KOOPERATIBA	16,70
DIONISIO ORMAZABAL	23,38
SOLRED	54,33
CALCOSA	151,25
EUSKALTEL	119,51
CORREOS	3,13
L.M. CHAPARTEGUI	260,00
L.M. CHAPARTEGUI	183,50
IZADI LABORATEGIA	152,94
AUDAX	434,14
AUDAX	1,30
AUDAX	178,36
AUDAX	330,56
AUDAX	110,26
AUDAX	153,14
AUDAX	64,82
AUDAX	264,33
ARGITU ASESORES	140,48
REPSOL BUTANO	4,20
REPSOL BUTANO	270,29
REPSOL BUTANO	305,25
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	174,18
GURDI KOOPERATIBA ELKARTEA	32,26
IZADI LABORATEGIA	152,94
FONTANERIA ANTZIETA	65,64
CALPARSORO INDUSTRIAL	45,25
ITURRALDE INDUSTRIAGAIK	40,76
BIDATEK	808,10
BIDATEK	471,90
BIDATEK	471,90



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TOLOMENDI	150,00
CORREOS	3,49
AUDAX	303,06

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **8.529,53** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO GOIZARGI ETXEAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.G.

Ikusirik I.G. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Goizargi etxearen teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko ekainaren 26an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO GOIZARGI ETXEAREN TEILATUA KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

I.G.I. jaunak, Goizargi etxearen teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta teilatu hodiak ordezkatzeari izango da, estalpeari xaflazko isolamendua eta teilatura ateratzeko leiho bat jarriaz.

Lan hauen aurrekontua, 10.270€-koa da (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guzietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Goizargi etxea Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera, ez du katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako lur ez hiritargariaren araudiaren 2.2 artikulua, teilatuaren akabera, zeramikazko teilazkoa edo honen antzekoa izan beharko da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, legeztagarriak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- I.G.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Goizargi etxearen teilatua konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOMENDIRI 2015 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2015eko apirilaren 29an ospatutako Batzar Orokorrean 2015 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2015 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalar 2.863,49 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.863,49 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2015 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

aurreikustea.

SEIGARREN PUNTUA

2015 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2015 urterako ura eta zabor taseen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 23tik martxoaren 2arte.

Aipaturiko epean lau eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.M.-eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- C.C. -eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- A.P.P. -eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- M.J.O.-eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

.

ZAZPIGARREN PUNTUA

GUIFINET EKOSISTEMA EZARTZEKO PROIEKTUAN EGINDAKO LANEN ORDAINKETA ONESTU, HALA BADA

Batzarkideak, aho batez, erabakitzen dute, gaia mahai gainean uztea hurrengo Udalbatzarrarte, Udal informatikariarekin gaia argitzeko.

ZORTZIGARREN PUNTUA

A.M. ANDREAK EGINIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.M. andreak Udaletxe honetan aurkeztutako idatzia, non dioen egiten ari den etxe berriko garajeen ur jauzi handiak daudenean, bertan dagoen hodia ataskatu egiten dela eta ura gainezka egiten duela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beraz, Udalari eskatzen dio aipaturiko arazoari irtenbide bat bilatzen laguntzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Onintza Gorostidi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- A.M. andreari jakinaraztea, Udal Aholkulari Teknikoa bertaratu dela aipaturiko arazoa ikustera, eta berak emandako soluzioa jakinaraziko zaiola.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

SANTIAGO ERMITA BIDEAREN ETXEJABEAK EGINIKO IDATZIAREN AZTERKETA

Ikusirik, Santiago Ermita bidearen etxejabeak eginiko idatzia, non dioten euren garajearen sarrerako espaloia zatia hondatua dagoela, beraz Udalari eskatzen diote hau konpontzea.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Santiago Ermita bidearen etxejabeek jakitera ematea, Udalak ahal duen azkarren konponduko duela, hondatuta dagoen espaloia.

HAMARGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.55 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)